



EXPEDIENTEA: 2/2026

ERABAKIA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO POLIZIAREN KONTROL ETA GARDENTASUN BATZORDEARENA, ERTZAINZAK OTSAILAREN 22an SESTAON EGINDAKO JARDUKETARI BURUZKOA

Lehenengoa.- Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuak 2026ko otsailaren 15ean bidalitako jakinarazpena jaso genuen. Honenbestez, 2026ko otsailaren 22an Ertzaintzak Sestaon burututako jarduketa ofizioz aztertzea erabaki dugu Batzorde honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziari buruzko Legearen testu bateginaren 17.2.b) artikulua araberak. Jakinarazpen horretan, honako hau zioen:

“Sestaoko Ertzaintxeak, 2026ko otsailaren 22an, [REDACTED] kodedun atestatua ireki zuen, egun hartako 00:54 inguruan izandako gertakari batzuegatik. Zehatz-mehatz, Sestaoko [REDACTED] Kale Nagusitik bereizgarri gabeko polizia-ibilgailu batean zihoazen bi agentek errieta bat izan zuten zenbait bizilagunekin zebra-bide batean. Gertakari horretan, borroka bat izan zuten agenteek bizilagun horietako batzuekin eta azken hauetako hiru atxilotu zituzten (emakume bat, haren semea eta haren lagun bat).

Ondoren ezagutzera eman zuten, atxilotuetako bat Gurutzetako ospitalera eraman zuten eta atxilotetan jasandako lesioen ondorioz ebakuntza egin zioten bertan.

Horren ondorioz, Barne Arazoetarako Burutzak barne-ikerketa bat ireki zuen eta atestatu horren titulartasuna bere gain hartu zuen. Atestatua instrukzio-fasean dago. Barne Arazoetarako Burutzak egindako eginbideen artean, atxilotutako emakumearen salaketa jaso zuten. Haren arabera, bere semea ospitalean ebakuntza

EXPEDIENTE 2/2026

ACUERDO DE LA COMISIÓN DE CONTROL Y TRANSPARENCIA DE LA POLICÍA DEL PAÍS VASCO SOBRE LA ACTUACIÓN DESARROLLADA POR LA ERTZAINZA EL 22 DE FEBRERO EN SESTAO

Primero.- Habiendo recibido la comunicación remitida con fecha de 15 de febrero de 2026 del Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, esta Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el art. 17.2.b) del Texto Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, acuerda proceder de oficio al estudio sobre la actuación desarrollada por la Ertzaintza el 22 de febrero de 2026 en Sestao que, en dicha comunicación, se describe así:

“La Ertzain-etxea de Sestao, en fecha 22 de febrero de 2026, procedió a la apertura del atestado de referencia [REDACTED], por unos hechos acontecidos sobre las 00:54 horas de ese día, cuando dos agentes que circulaban en un vehículo policial sin distintivos por la calle Gran Vía [REDACTED] de Sestao tuvieron un incidente con varias personas en un paso de cebra. En el transcurso de este incidente, se produjo una pelea entre los agentes y algunas de estas personas, resultando, finalmente, detenidas tres de ellas (una mujer, su hijo y un amigo de este).

Con posterioridad, se tuvo conocimiento de que uno de los detenidos fue ingresado en el hospital de Cruces donde fue operado a consecuencia de las lesiones sufridas durante la detención.

A raíz de ello, la Jefatura de Asuntos Internos procedió a la apertura de una investigación interna, asumiendo la titularidad del referido atestado, el cual se halla en fase de instrucción. Entre las diligencias practicadas por la Jefatura de Asuntos Internos, se recogió denuncia a la mujer que resultó detenida, quien confirmó que su hijo había



egin ziotela baieztatu zen barrabil batean izandako lesioarengatik. "

Bigarrena.- Aurreko puntuan aipatutako polizia-jarduketaren ezinbesteko azterketa egiteko beharrezko informazioa eskuratze aldera, Batzorde honetan, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari honako dokumentu hauek eskatzea erabaki dugu:

a) Segurtasun sailburuaren jakinarazpenean aipatutako polizia-jarduketaren ondorioz gertakariak ikertzeko sor litezkeen eginbide judizialak hasi ote diren ohartaraztea, burutzen ari diren epaitegia eta horien erreferentziazko signatura adierazita.

b) Ertzaintzaren Barne Arazoetarako Burutzak irekitako barne-ikerketako eginbideen kopia bat helaraztea, adierazitako polizia-jarduketaren inguruko gertakariak argitzeko.

c) Batzorde honi polizia-jarduketa horri buruz bideratutako polizia-atestatuaren kopia bat helaraztea, Euskarri aplikazioan ordu-tarteari eta hura gertatu zen lekuari buruz editatutako txostena barne.

d) Polizia-jarduketa horretan parte hartu zuten agenteek Aginte eta Kontrol Zentroarekin, irrati bidez, gertakarien inguruabarrei buruz hitz egin zuten jakinaraztea. Baiezkoan, komunikazio horien transkripzioa eskatu nahi dugu.

e) Polizia-jarduketa burututako toki eta egunean bideozaintzako kamerarik instalatuta zegoen jakinaraztea, aipatutako polizia-jarduketaren irudiak jaso ahal izateko. Baiezkoan, aztertutako gertakarien egun eta orduan grabaziorik egon litekeen jakiteko informazioa biltzea eta Batzorde honetara bidaltzea.

sido intervenido en el hospital por una lesión en un testículo."

Segundo.- A fin de disponer de la información necesaria para la realización del estudio preceptivo sobre la intervención policial referida en el punto anterior, la Comisión acuerda interesar del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco que:

a) Le informe sobre la eventual incoación de actuaciones judiciales de investigación que pudiera producirse acerca de la actuación policial a la que se refiere la comunicación del Consejero de Seguridad, con indicación del juzgado en el que se sustancian y de la signatura de referencia de las mismas.

b) Se le dé traslado de una copia de las diligencias de investigación interna abiertas por la Jefatura de Asuntos Internos de la Ertzaintza para el esclarecimiento de lo sucedido durante la actuación policial descrita.

c) Se dé traslado a esta Comisión de una copia del atestado policial que se instruya sobre la repetida actuación policial, con inclusión del informe editado en la aplicación Euskarri respecto del tramo horario y del lugar en los que esta se produjo.

d) Se le informe de si, a lo largo de la intervención policial, se efectuaron comunicaciones por radio de los agentes actuantes con el Centro de Mando y Control sobre las circunstancias concurrentes. Si así fuera, se solicita la transcripción de dichas comunicaciones.

e) Se le informe de si en el lugar y la fecha en la que se produjo la actuación policial se encontraban instaladas cámaras de videovigilancia, que pudieran haber recogido la actuación policial considerada. En caso afirmativo, se recabe información sobre la eventual existencia de grabaciones correspondientes a la fecha y hora en la que ocurrieron los hechos objeto de estudio y se remitan a esta Comisión.

Azkenik, Batzorde honekin harremanetan jartzeko bide egokia ezartzeko asmoz, Ertzaintzaren Zuzendaritzari berariazko solaskidearen berri ematea eskatu nahi diogu, espediente honen izapidea arintze aldera.

Finalmente, se interesa que por la Dirección de la Ertzaintza se indique una persona de referencia para establecer el oportuno canal de comunicación con esta Comisión, a los efectos de agilizar la instrucción del presente expediente.

Bilbon, 2026ko martxoaren 2an

En Bilbao a 02 de marzo de 2026

Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordekoburua
El Presidente de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco

[Redacted signature]

Harremanetarako helbidea/Dirección de contacto: polizia-gardentasuna@euskadi.eus